



2013ko JOKOEN TXOKOA UMANDI

- 🕒 **Noiz:** Uztailaren 1tik 12ra
- 🕒 **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara
- 🕒 **Norentzat:** Bai Umandi ikastolan zein beste ikastetxetan matrikulatutako umeentzat
- 🕒 **Umeen kopurua:** Haur Hezkuntza (1., 2. eta 3.), eta Lehen Hezkuntza, (1. eta 2.)
- 🕒 **Animazioa:** Xenda begirale taldea
- 🕒 **Ekintzak:** jokoak, kankak, lantegiak, etab.
- 🕒 **Gaia:** Urte honetan Xendak aukeratutako gaia "Filmetako...udalekuak" da, eta hauek adierazten dizkiguten baloreak landuko dira, hau da, familia, genero berdintasuna, laguntasuna, naturarekiko errespetua, helburuak lortzeko konstantzia, hau dena joko abesti eta tailerren bitartez landua.
- 🕒 **Hizkuntza:** Euskara
- 🕒 **Salneurria:** Ume bakoitzak 110 € ordaindu beharko du Vital Kutxan dugun kontu zenbakian **2095 3173 05 1090392720** (Dirua sartzean, **UMEAREN** izena eta lehenengo bi abizenak zehazteko eskatzen dizuegu). (Udal dirulaguntza behin ebatzia, **eta emana izatekotan**, parte-hartzaile bakoitzari dagokiona itzuliko diogu)
- 🕒 **Izen ematea:** **Maiatzaren 17a** baino lehen, honekin batera doan orria eta ordainagiria Zuzendaritzan utzi beharko dituzue.
- 🕒 **Behin betiko zerrendak argitaratzea:** Maiatzaren 27tik aurrera behin betiko zerrendak argitaratuko ditugu Ikastolan eta web orrian (www.umandi.net). Oso komenigarria da begiratzea akatsik ez dagoela ziurtatzeko. Begirale kopurua behin finkatuta, Jokoen Txokoa uzteko, ez da dirurik itzuliko.

Beste ikastetxeetan ikasten duten umeentzako baldintzak:

- Umandi ikastolako umeei esleitu ondoren, sobera geratuko diren lekuak eskuratu ahal izango dituzte.
- D edo B ereduetan ikasi behar dute.
- Parte hartzeko irizpideak:
 - D eredu: 2 puntu; B eredu: puntu 1.
 - Bizilekua Lakua-Arriagan: 2 puntu. Beste inon: puntu 1.
 - Umandi ikastolatik kanpo matrikulatutako umeentzat izena emateko orriak ikastolako idazkaritzan jaso behar dituzte.

Beste ikastetxe bateko umeak onartzekotan, sartzeko irizpideak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute.

Jokoen Txokoa guztiok ondo pasatzeko:

- 🕒 Sartu eta ateratzeko ordutegiak errespetatu egingo dira.
- 🕒 Begiraleak jakinaren gainean egon beharko du edozein ume falta bada, lehenago irteten bada edo baja bada Jokoen Txokoa.
- 🕒 Partehartzaile bakoitzak bere taldean eta bere begiralearekin egon behar du guztientzako ekintzetan izan ezik.
- 🕒 Begiralea eta kideak errespetatu egin behar dira; horretaz gain, ekipamenduak eta materiala ere modu egokian erabili behar dira.
- 🕒 Kapela eta arropa eroso eta eramatea komenigarria da.

Gurasoen bilera: programan interesa duten gurasoei bilera-deia egin nahi diegu. Bilera maiatzaren 28an izango da, arratsaldeko 16:45an musika gelan.